

Guipúzcoa deportiva y aristocrática urtekaria: Emakume modernoaren moda (1926-1932)¹

Anuario Guipúzcoa deportiva y aristocrática: Moda de la mujer moderna (1926-1932)

The annual Guipúzcoa deportiva y aristocrática²: Modern Woman's fashion (1926-1932)

Arberas Del Solar, Leire.

Euskal Herriko Unibertsitatea/University of the Basque Country

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2019), 4; 99-131]

Hartua: 2019.09.20
Onartuta: 2019.11.12

Artikulu honen helburua modaren bitartez Guipúzcoa deportiva y aristocrática (1926-1932) urtekariak hiriko baliabide ekonomiko handiko emakumeen irudiaren bilakaera nola adierazten duen aztertzea da. XX. mendearen lehen herena emakumeen historian momentu erabakigarria izan zen genero femeninoaren irudi tradizionala desagitzen hasi zelako eta eraldaketa hori modan islatu zen. Prentsako kasu honek emakumeen eboluzioaren nondik norakoak ezagutzea eta frogatzea ahalbidetuko digu. Gainera, Primo de Riveraren Espainia kontserbadoretik aldentzen zen Donostia kosmopolita, turistiko, dotore eta modernoak analisi honetarako eszenatoki biribila eskainiko digu.

Hitz gakoak: moda, emakumea, Donostia, modernizazioa, Guipúzcoa deportiva y aristocrática, XX. mendearen lehen herena.

El objetivo de este artículo es analizar a través de la moda cómo representa el anuario Guipúzcoa deportiva y aristocrática (1926-1932) la transformación de la imagen de las mujeres urbanitas de grandes recursos económicos. El primer tercio del siglo XX fue un momento crítico en la historia de las mujeres pues el modelo tradicional del género femenino comenzó a deshacerse y este cambio se reflejó en la moda. Este caso de prensa nos posibilitará conocer y demostrar la evolución de las mujeres. Además, la ciudad cosmopolita, turística, elegante y moderna de San Sebastián, alejada de la España conservadora de Primo de Rivera, nos proporcionará el escenario idóneo para ello.

Palabras clave: moda, mujer, San Sebastián, modernización, Guipúzcoa deportiva y aristocrática,

1. Artikulu hau 2019ko ekainean defendatu den Historiako Graduko nire GRALaren atal baten moldaketa da.

2. English translation: sporty and aristocratic Guipúzcoa

primer tercio del siglo XX.

The aim of this article is to analyse through fashion how the annual Guipúzcoa deportiva y aristocrática (1926-1932) represents the transformation within the image of urban women with significant economic resources. The first third of the 20th century was a critical moment in women's history because the traditional female gender role started to break down and that change reflected on fashion. This press example will enable us to learn about and demonstrate the evolution women lived. Moreover, the cosmopolitan, touristic, elegant and modern city of San Sebastián, separated from the Primo de Rivera's conservative Spain, will provide us the ideal setting for it.

Key words: fashion, woman, San Sebastián, modernization, Guipúzcoa deportiva y aristocrática, first third of the 20th century.

1. SARRERA

XX. mendearen lehen herena garrantzizko trantsiziozko aldia suertatu zen, izan ere, genero sistema bitar tradizionala kolokan jartzen hasia zen. Emakumeek³ aurrerapauso positiboak eman zituzten eta gizartean parte-hartze aktiboa zein presentzia nabarmenagoa eskuratu zuten. Horrela, emakume ereduak modernizazioranzko eraldaketa bat ezagutu zuen eta bilakaera horren fruitua *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* urtekarian islatuta ikusi ahalko dugu. Ikerketa honek bilatzen duena jaio zen emakume modelo berri hura analizatzea eta ulertzea da, moda gidari eta oinarri izanik oso esanguratsua eta baliagarria baita.

Ikerlan honetan genero ikuspegia lantzea ezinbestekoa da, emakumeek beren askatasun, independentzia eta emantzipaziorako lehen urratsak eman zituztelako, batez ere esparru sozialari dagokionean. Gizonezkoei, gizon izate hutsagatik, atxiki edo egokitu zitzaizkien eskubide batzuk, gutxika zenbait emakumeek erdietsi zituzten. Horregatik, ohitura asko zaharkiturik geldituko dira eta bizimodu aurrerakoi edo toleranteago bati emango zaio paso, non emakumeek lehenago galaraziak zituzten espazioak, jarduerak eta janzkerak konkistatuko dituzten. Honela, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko edukia euskarri nagusia izanik, frogatu eta baieztatu ahalko da aurrerapen hori gertatu zela. Ordea, beste alde batetik, agerian geldituko da oraindik pentsamendu kontserbadorea gailenduko dela orokorrean eta lorpenetako batzuk gainazaleko eragina eta inpaktua soilik izango dutela. Hau da, prozesu oso luze baten hastapenean aurkitzen gara eta, beraz, aldaketak ezin dira sakonak eta azkarrak izan.

Artikuluaren gaia aukeratzearen arrazoi edo zergati pisutsuena da emakumeak luze baztertuta eta absente egon direla historian, aitzitik, azkenaldian interes handia piztu da eta berebizikoa da horrelako hutsuneak betetzen laguntzea. Horrez gain, moda iturri historiko bezala gutxietsia izan da, hutsala eta friboloa izatearen aurreiritziagatik, eta xedeetako bat hemen bere balioa azpimarratzea litzake. Moda oso kontzeptu abstraktua eta ambigua da eta inposizio elementu gisa hartu badaiteke ere, kasu honetan adierazpen eta aldarrikapen tresnatzat hartuko dugu.

3. Artikulu honetan emakumeei buruz hitz egiten denean, ez zaie emakume guztiei erreferentzia egiten, baizik eta gutxiengo bati. Hain zuzen, estatus edo maila altukoengatik inguruan ari gara, zeintzuek gehiengoak ez zituen aukerak eta baliabideak zituzten.

2. GUIPÚZCOA DEPORTIVA Y ARISTOCRÁTICA-REN AURKEZPENA

2.1 Prentsa

XX. mendearen hasieran, prentsa kuantitatiboki eta kualitatiboki hazi zen eta kazetariak estatusa irabazi zuten⁴. Aldi berean, egunkarietatik at, prentsa mota edo adar berri bat sortu zen zeinek ez zion urgentzia edo bizkortasun informatiboari lehentasuna ematen, baizik eta gizarteko beste aspektu batzuei, hala nola, kultura, kirola, artea, zientzia, literatura, moda etab. Bertan, hausnarketa eta interpretazioa izango dira nagusi eta horretarako, erreportaiaren generoa erabiliko da hedadura handikoa izateagatik.

Prentsa klase honen argitalpena asterokoa, hilerokoa edo periodikotasun luzeagokoa izango da, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ren kasuan, urterokoa⁵. Espainian Primo de Riveraren garaian zentsura politikoak prentsan ere eragiten zuen baina Bigarren Errepublikaren Konstituzioarekin 1931an prentsa askatasuna aldarrikatu zen eta komunikabideek gorakada bat izan zuten⁶. Egunkariengan ez bezala, adierazpen askatasunaren permisibitateak ez du hain bortizki joko *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-rengan, izan ere, ez zegoen zuzenean kontu politikoetan murgildurik eta onuragarria zen Espainiarentzako Donostia eta inguruneak oso erakargarriak egiten zituelako turistentzako.

Testuinguru honetan, emakumea gizarte modernoaren ikur bihurtu zen eta, ondorioz, prentsaren subjektua eta objektua ere, hots, aldi berean protagonista eta hartzailea⁷. Prentsak emakumeei zuzendutako sekzioak sortu zituen eta bere irudiaz baliatu zen marketin estrategia gisa. Hau oso onuragarria eta baliotsua da artikuluek honek atal horiek aztertuko baititu. Prentsa hedabide ospetsua eta oso erabilia zen heinean, primerakoa da informazioa lortzeko. Zentzu metaforikoan, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k zeharka hitz egingo digu emakume modernoaren ereduari buruz.

2.2 Urtekariaren deskribapena

Guipúzcoa deportiva y aristocrática aurrenekoz 1926an eta azkenekoz 1932an Donostian kaleratutako urtekaria izan zen⁸. Aldizkaria Comas-Lafont

4. DÍAZ NOCI, Javier, Historia del Periodismo Vasco (1600-2010). In: *Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación* 13, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012; 127-128. orr.

5. *Ibidem.*, 139-140. orr.

6. *Ibidem.*, 160-166. orr.

7. RIERA, Marta, 200 Años De Ilustración De Moda En España, Bartzelona: Comanegra, 2014; 115. or.

8. Hasiera batean, bulego nagusia Donostian (Hondarribi Kalea, 21) kokatzen zen baina denborarekin tokiz aldatu zen (1929an Moraza Kalea, 5 eta 1930ean San Bartolome Kalea, 11) eta

izen bildurapean sinaturik dago, hain zuzen ere, L.Comas Perez Caballero zuzendariaren eta Alberto Lafont administratzailearen deiturretatik eratorritako firma izanik. Guztira, zazpi ale argitaratuak izan ziren, ordea, artikulu hau osatzeko, “Atzoko Prentsa Digitala” hemerrotekan eskuragarri dauden seiak erabiliak izan dira⁹. Aipatu beharra dago, azken bi aleak, hau da, 1931koa eta 1932koa, *Guipúzcoa, Turística y Aristocrática* dutela izenburu¹⁰. Sei aleetatik laburrenak 60 orrialde eta luzeenak 102 ditu, eta ez dute antolaketa edo egitura jakin bat jarraitzen. Bertan, autore desberdinen eskutik, mota askotariko elkarrizketak, erreportaiak, publizitatea, argazkiak etab. aurkitzen dira, eta dena gainbegiratu ondoren, artikuluekin zerikusia zuten atalak hautatu eta modu sakonean analizatu dira.

Bestalde, deigarriak zein esanguratsuak dira aldizkariako aleen kaleratze datak eta arreta jartzea komeni da, izan ere, beren zergatia dute. Lehenengo bostak¹¹ (1926tik 1931ra), udako sarreran, zehatz-mehatz ekainaren 1ean plazaratu ziren baina seigarrena (1932koa) urtarilaren 1ean atera zen. Testuinguru historikoa kontuan hartuta, garrantzitsua da gogoratzea 1923tik Espainian Miguel Primo de Riveraren erregimen diktatorialak indarrean ziruela Alfontso XIII monarkaren onespenezekin batera. Beraz, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ren eduki modernoa eta aurrerakoia kontuan hartuta, gobernu kontserbadore eta autoritario baten aurrean, argitalpena oporraldira mugatua zegoen. Ordea, 1931ko apirilaren 14an Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, zentsura arauak aldatu eta argitalpen datak hain politikoki baldintzatuta egoteari utzi zion.

Urtekariaren prezioa pezeta bat edo pezeta eta erdikoa zen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k, aldizkari garaikideekin konparatuz gero, salneurri estandarra zuen. Adibidez, *Renovante*-k (Donostia, 1930) berdina balio zuen¹². Horrek pentsarazten digu, eroslearen profila zabala zela, baina edukiak ez du gauza bera adierazten. Izan ere, aldizkariak estatus sozial altuko biztanleen bizimoduaren isla eskaintzen digu, besteak beste: zaldi-lasterketak, Pariseko moda, tenisa edo golfa bezalako kirolak, automobilak, aisialdirako espazioak... Ondorioz, irakurlea edo hartzailea nagusiki baliabide aberatsekoa izateko pentsatua eta zuzendua zegoen. Hori dela eta, jarraian garatuko den aztergaia baldintza edo ezaugarri horietako emakume mota izango da, hau da, gutxiengo baten errealtatea bakarrik analizatu eta irudikatuko da.

Irurera zabaldu zen (Colon Ibilbidea, 19).

9. ARZAMENDI, Arantxa, Catálogo de publicaciones periódicas donostiaras: 1800-1936. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 219. or.

10. Izenburu luzea *Guipúzcoa, Turística y Aristocrática: Revista de la Costa vasca española, vasca francesa, Pirineos occidentales y Costa Azul* zen. Euskal eta frantses kostaldean erlazio estua eta elkarrengana zela medio, urtekariaren kontuan hartzeko esparrua zabaldu egin zen.

11. 1927ko alea ez da digitalizatuta ageri.

12. ARZAMENDI, Arantxa, *op.cit.*, 154. or.

2.3 Donostia

Guipúzcoa deportiva y aristocrática-ren eszenatokia Donostia kosmopolita, liberala eta dotorea izango da. Hiri turistikoa zen heinean¹³, aniztasun horrek Espainiako beste zonalde kontserbadore eta tradizionalista asko baino irekiagoa izatea ekarri zuen. Urtekariak aditzera ematen duenez, Donostia “one of the most elegant and advanced cities of Europe” zen eta “the pride and admiration of Spain”¹⁴. Oporraldian, turista prestigiotsuen helmuga ospetsua zen (monarkiako kideak, gortesauak, aristokratak, burgesak, artistak etab.) eta udatiar kolonia inportante bat jasotzen zuten: “*distinguidas personas que nos honran con su visita*”¹⁵. Adibidez, 1877tik 1929ra María Cristina erreginak udak Donostian igaro zituen. Edo Alfontso XIII.a erregea kotxez paseatzen ibili ohi zen Donostiatik. Horrela, Donostia Espainiako “hiriburu” edo zentroa bilakatu zen, non turismoak gero eta indar handiagoa hartu zuen. 1912an María Cristina Hotela ireki ostean, turistentzako hotelen eskaintza apartekoa izan zen. Arrakasta turistikoaren gailurra 1920an gertatu zen, Donostia Nazioen Ligako Kontseiluaren biltzarretarako egoitza izateko hautatu zenean¹⁶.

1923ko irailaren 13an Miguel Primo de Rivera generalaren erregimen antikonstituzionala eta militarista ezarri zen Espainian¹⁷. 1925ean gobernuburuak jokoa debekatu zuen eta hau kaltegarria izan zen turismoarentzako. Diktadoreak udaldi oro Donostia bisitatzen zuen eta hasiera batean etsaitasunik ez zegoen arren, Donostiak bere bi kasinoak itxi behar izan zituen haserrearen piztu zen. Hala ere, diktadurak asaldura politiko-soziala baretu zuen eta Donostiako udalak hiria zabaltzeko eta atzerritar dirudunak erakartzeko planekin jarraitu zuen¹⁸. 1926an kalkulatu da 20.000 ohe baino gehiago okupatzen zituztela turistek Donostian¹⁹. 1927tik aurrera turismoa berreskuratzen hasi zen eta 1930eko hamarkadan are gehiago putzu zen²⁰.

Bestalde, lekuko maila sozial altuko emakumeak kontuan hartu behar ditugu, zeintzuei *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ren lehen aleko aurkezpenean edo esker-ematean tarte bat dedikatzen dieten: “*a las bellas muchachas guipuzcoanas, que con sus retratos adornan nuestras páginas*”. Laburbilduz, bi multzo horiek, hots, kanpotar eta etxeko luxuzko emakumeak, izango dira artikulu honetako protagonistak. Donostian biltzen zen talde *chic*

13. Urtekaria gehienbat gaztelaniaz eta neurri txikiagoan frantsesez baita ingelesez idatzia dago, funtzioetako bat Gipuzkoa atzerritarrei saltzea eta bisitariak erakartzea baitzen.

14. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 17. or.

15. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 1. zbk. (1926), 45. or.

16. AGUIRRE, Rafael, *El turismo en el País Vasco*, Donostia: Txertoa, 1995; 116. or.

17. *Ibidem.*, 119. or.

18. ARTOLA, Miguel, *Donostiaren Historia*, Donostia: Nerea, 2001; 142-143. orr.

19. AGUIRRE, Rafael, *op.cit.* 125. or.

20. ARTOLA, Miguel, *op.cit.*, 133. or.

honek moda femeninoa ezagutzeko bidea irekiko digu:

*In the extensive saloons of its grand centres of amusements, will be held the meetings of the high class society, the most sumptuous and suggestive; these reunions being of the most select, are known all over the world and are distinguished as a model of elegance and good taste.*²¹

Gauzak horrela, XX. mendearen hasieran, kirola praktikatzeko, espektakuluetarako eta aisialdirako espazioak sortu ziren Donostian, bai turistentzako zein lekukoentzako. Urbanizazio prozesuarekin batera, aristokraziaren desirak edo eskakizunak asetzeko, luxuzko azpiegiturak (errepideak, tranbia, topoak...) eta instalazioak (kasinoak, hipodromoa, hotelak, bankuak, bainuetxea, hondartzako paseoa, kafeak, tabernak eta abar) eraiki ziren:

*Loiola auzoan zezen plaza estali bat kokatu zuten. 1912an jarri zuten abian Igeldoko funikularra, eta hurrengo urteetan egin zituzten Pasaleku Berria eraikitze lanak. Kontxako Hondartza ere dotoretu zuten: La Perla, harritzko eraikina, eta Erreginaren bainuetxea (...) jaso zituzten 1911tik 1912ra bitartean. 1921ean, udalak Urgull mendia erosi zuen, herritarren aisialdirako. 1922an inauguratu zen Kursaalako Kasino Handia. Horrez gainera, zezen plaza, hipodromoa, golf zelaia... eskaintzen zizkien Donostiak udatarrei, eta, 1924rako, European boladan zeuden beste leku turistiko guztiak baino askoz eskaintza handiagoa zuen Donostiak*²².

Gainera, modaren erdigunea eta erreferentea Frantzia (batez ere Paris) zen eta euskal kostak eragin edo harreman zuzena jasotzen zuen auzokideetatik: *“the admirable transport arrangements keep it constantly in touch with Biarritz and San Juan de Luz, famous fashionable resorts on the French side of the frontier”*. Turismo frantses-euskaldunaren baitan, Biarritzek arrakasta handienetarikoa jaso zuen eta Donibane Lohizunek jarraitu zion baina hainbesterako ospe eta prestigiorik gabe. Biarritzen aristokrazia espainiarra, ingelesa, errusiarra eta beste batzuk batu eta ostatu hartzen zuten, *standing* altuko turismoa gauzatzen zutelarik²³. 1912tik aurrera, topoak Donostia Frantziarekin konektatu zuen eta alde batetik besterako joan-etorriak erraztu zituen.

Guzti honengatik, hots, Donostiaren ingurugiroa kontuan harturik, emakumezkoen modak berebiziko pisua zuen Donostiako dotoretasun burbuila hartan. Komunikabideek, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* tartean, modari buruzko informazioa zabaltzen lagunduko dute: *“la prensa, que en sus secciones*

21. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 28. or.

22. *Ibidem.*, 130-131. orr.

23. AGUIRRE, Rafael, *op.cit.*, 311-312. orr.

*de modas lleva hasta los rincones de las aldeas las últimas creaciones de París*²⁴. Dibulgazio horrek posible egiten zuen maila internazionalako moda, eskala txikiagoan errepikatzea eta Donostian jendartean barrentzea.

Ondorioz, Donostia eszenatoki perfektua izango da artikulu honek aztertzen duen emakume ereduak aurkitzeko, izan ere, hurrengo elementuak biltzen ditu: hiri burgesa da, turista zein biztanle eleganteak ditu, eta modarekin kontaktu zuzena dauka. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k hirurak batean elkartzen ditu.

3. GENERO FEMENINOAREN BILAKAERA XX. MENDEAREN HASIERAN

Carmen de Burgos kazetari espainiarrak aitortu zuen bazirudiela mende askotako distantzia zegoela 1899 eta 1927ko emakumeen artean²⁵. Eta oso zuzen zegoen. XIX. mendearen amaiera arte, sexuen ikusmolde dimorfistari jarraiki, genero bakoitzak bertute edo ezaugarri batzuk zituen, hau da, emakume eta gizonek funtzio espezifikoak, osagarriak eta, ondorioz, desberdinak zituzten eta horren arabera gizartean rol bat edo beste egokitzen zitzairen (erreproduktiboa emakumeei eta produktiboa gizonei). Hierarkia hori zalantzan jar zezakeen edozer antinatural eta immoralizat hartzen zen²⁶. Baina denborarekin sistema bitar tradizionala eraldatzen hasi zen.

Eskema transformatu baino lehen, emakume ereduak edo prototipoak “Ángel del Hogar” irudiarekin bat egiten zuen. “Ángel del Hogar”, edo euskaraz “Etxeko Aingerua”, María del Pilar Sinués idazleak sortutako terminoa da, gerora emakume mota jakin bat izendatzeko erabilia izan dena. Emakume eredu honek etxekotasunera hots, esparru pribatura, baztertuta zegoen emakumeari egiten dio erreferentzia, funtsean emaztearen eta amaren paperak betetzera mugatua zegoena. Hau purua, birjinala, asexuatua, bihozbera, eta otzana izan behar zen. Beraien egitasmoa familia zen heinean, indibidualtasun oro galtzen zuten²⁷. Irudi hau gizarte patriarkalaren isla zen, non emakumeen papera gutxiesten zen. Carmen de Burgos-en hitzetan, gizonezkoak arduratzen ziren aingeru haiei “hegoak mozten”²⁸. Gizonak jaun eta jabe ziren, ez zituzten emakumeak parekotzat hartzen eta are gutxiago hazteko aukerak ematen, baizik eta oztopoa ziren, ez baitzeuden prest beraien botere eta pribilegio

24. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 5. zbk. (1930), 64. or.

25. DE BURGOS, Carmen. *La mujer moderna y sus derechos*. Valentzia: Editorial Sempere, 1927; 260. or.

26. ORTEGA LÓPEZ, Teresa María, “Mujeres y II República. *Redefinición y politización* del modelo de feminidad por las cultura antiliberales españolas”, *FEMINISMO/S* 16, 2010; 216. or.

27. NASH, Mary, *Mujeres En El Mundo: Historia, Retos Y Movimientos*. Madril: Alianza Editorial, 2012; 40-41. orr.

28. DE BURGOS, Carmen, *op.cit.*, 13. or.

historikoak galtzeko. Hau da, komenigarria zen gizonezkoentzako genero eredu tradizionalak mantentzea, beren mesederako eta onurarako antolatua zeudelako.

Ostera, XX. mendearen lehen herenean zehar, emakume eredu moderno bat sortu eta osatu zen. Honi “Eba Modernoa” deituko diogu, “Etxeko Aingerua”-ren kontzeptutik aldentzen eta desberdintzen dena. Eba Modernoak ordura arte gizonek monopolizatutako espazio publikoa (batez ere zentzu sozial batean) “konkistatu” zuen. Beste elementu batzuen artean, kirola praktikatzen zuen (tenisa, golfa, patinaje artistikoa, igeriketa, hipika etab.), gidatzeko aukera zeukan, tabernetan alkohola edatera edo dantzatzera irten zitekeen, zer arropa erabili erabaki (orrazkera, makillajea, jantziak etab.) eta kasu batzuetan ikasteko posibilitatea eduki ahal zuen. Beraz, emakume honen irudi mitikoa eder, aktibo, dinamiko, inkonformista, independenteago eta askeago imajinatu behar dugu. Honela, emakume eta gizonen funtzioak hein batean lausotu eta bi generoen arteko harremana aldatu zen²⁹. Gizonen eta emakumeen artean luze iraun zuen “hitzarmen” edo “antolakuntza” ustez orekatua eta naturala, apurtzen hasi zen. Sexuaren arabera patu bat edo beste egokitzearena eta onartzearena aldatzen zegoen, orain zenbait emakumeek beren limiteetatik irtetzeko aukera zuten.

Genero femeninoaren askatasun eta emantzipazio prozesu horretan gertatutako aurrerapausoek modarekin bat egingo dute. Horrela, prentsak emakumeei bideratutako atalak konposatuko ditu, zeintzuek baieztatu eta erakutsiko duten emakume berri baten sorrera edo eraketa ematen ari dela. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n erakusten den “produktua”, XX. mendearen lehen herenean gertatutako aldaketan emaitza da. Trantsiziozko etapa batean kokatzen gara. Baliabide aberatseko emakumeek geroz eta parte-hartze edo presentzia handiagoa zuten esparru publikoan eta bizimodu dinamikoago bat hartu zuten. Orduan, arropa pisutsua, deserosoa, estatikoa eta estalia izatetik, praktikoa, arina eta irekia izatera pasatu zen, modu horretan emakume modernoaren egoerara moldatu ahal izateko³⁰. Beraz, urtekarian ageri zaigun emakume eredu testuinguru horretan ulertu behar da eta aldizkariak berak bilakaera horren zantzuak edo elementuak aipatuko ditu.

29. DÍAZ FREIRE, José Javier, “La Reforma de la vida cotidiana y el cuerpo femenino durante la dictadura de Primo de Rivera”. In: *El rumor de lo cotidiano: estudios sobre el País Vasco contemporáneo*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999; 248. or.

30. ENTWISTLE, Joanne, *El cuerpo y la moda. Una visión sociológica*, Bartzelona: Paidós, 2002; 192. or.

4. MODAREN INGURUKO AURRESOLASA

Zer da Moda? Oharkabeko edo ezkutuko galdera abstraktu eta konplexuak ez du atentziorik ezta interesik piztu duela 100 bat urte arte. Beraz, ez da modaren inguruan askorik idatzi. XIX. mendearen amaieran gauzatu ziren lehendabizikoz modaren inguruko ikerketak, hausnarketak eta analisiak. Ondoren, XX. mendean zehar Mendebaldar Europako eta Ipar Amerikako diziplina akademiko desberdinetako adituen eskutik (psikologia, soziologia, antropologia, historia, filosofia etab.) aztertu da fenomenoak³¹. Intelektual batzuen iritziz, esate baterako Efrat Tseëlon kultura-teorikoa eta Ted Polhemus antropologoa, arreta faltaren jatorria moda “femeninoa” edo emakumezkoen afera kontsideratzeagatik dator³². Orain ordea, aberatsak dira modari buruzko ikasketak.

Moda zaila da definitzeko eta ulertzeko, horregatik desadostasun eta eztabaida handiak daude autoreen artean. Hala ere, amankomuneko zenbait elementu aurki ditzakegu. Garbiena eta errepikatuena hurrengoa da: moda, Paul M. Gregory ekonomialariak aditzera ematen duenez, “*everchanging chameleon*” bat da, hots, etengabe aldatzen dago³³. Beraz, iragankorra da: jaio, hazi, hil eta birsortzen da. Historialariek antzeman dute 1890. urtetik aurrera, moda gero eta abiadura handiagoz aldatzen zihoala. Beste ezaugarri bat moda komunikatiboa eta esanguratsua dela da. Pentsamendu honetakoa da adibidez Alison Lurie linguista, zeinek defendatzen duen jantziek “hit egiten” dutela³⁴. Modu honetan, modak klase estruktura, adin-genero rola eta maila ekonomikoa isla dezake. Gainera, kode sozial eta kultural bati erantzuten dio eta testuinguruaren arabera³⁵.

Zentsu honetan, XX. mendearen hasiera trantsiziozko denboraldi ezegonkorra izan zen heinean, moda eta historia lotuta doazenez, berrikuntza nabarmen ugari emango dira emakumezkoen janzkerari dagokionean.

Thorstein B. Veblen soziologoaren ikuspuntutik, XIX. mendearen azken hamarkadetako estatus altuko emakumezkoen arropak aisia eta lan produktibo eza sinbolizatzen zuen. Ildo beretik, Helen E. Roberts feministaren hitzetan, modak sumisioa, estatismoa, eta fribolitatea helarazten zituen:

31. TORTORA, Phyllis G., “History and Development of Fashion”, In: *Berg Encyclopedia of World Dress and Fashion* 10, Oxford: Berg Publishers, 2010;159-170. orr.

32. ENTWISTLE, *op.cit.*, 75. or.

33. NUGENT, Elinor, *The Relationship of Fashion in Women's Dress to Selected Aspects of Social Change From 1850 to 1950*, Louisiana: Louisiana State University, 1962; 15. or.

34. LURIE, Alison, *El lenguaje de la moda. Una interpretación de las formas de vestir*, Madrid: Paidós, 1994; 31. or.

35. NUGENT, *op.cit.*, 40. or.

Men were serious (they wore dark colors and little ornamentation), women were frivolous (they wore light pastel colors, ribbons, lace, and bows); men were active (their clothes allowed them movement), women inactive (their clothes inhibited movement); men were strong (their clothes emphasized broad chests and shoulders), women delicate (their clothing accentuated tiny waists, sloping shoulders, and a softly rounded silhouette).³⁶

Aitzitik, XX. mendearen lehen herenak buelta eman zion irudi klasiko horri eta *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* urtekariak moda moderno, dinamiko eta funtzionala du oinarri:

Corsets and tightly fitted garments were discarded for loosely fitted dresses. Necklines were lowered and sleeves were removed. Skirts were shortened, gradually at first, to reveal the legs. The average skirt length was six inches from the floor in 1917, and by 1927 it was at the knees. (...) The complete abandonment of restrictions in manners, morals, and sex resulted in fashions which lacked the modesty and femininity which had characterized fashionable dress previous to this period.³⁷

20ko hamarkadan modak tankera *casual*-a eta eroso bereganatu zuen, aurreko aldietan baino malguagoa bilakatuz. Gakoa eredu femeninoaren emantzipazioaren hastapenean datza. Emakumeek gero eta aukera, onarpen, parte-hartze eta agerpen nabariagoa zuten esparru publikoan. Elkartze sozial berriak emateko posibilitatea handia zen, batez ere, aisialdiko aktibitateetan. Motor-garraibideek, bizikletak, kirolek (badmintona, saskibaloia, tenisa...), zinemak, dantza-aretoek, kafeek, kasinoek etab. mota ezberdinetako konjuntio praktikoak eta arrazionalak eskatzen zituzten oihuka. Ondorioz, mugimendua jomuga zuen janzkera da aldizkariak eskaintzen duena.

5. MODAREN EBOLUZIOA GUIPÚZCOA DEPORTIVA Y ARISTOCRÁTICA-N ISLATURIK

XX. mendearen hasieran, modaren esanahia goitik behera transformatuko zuen salto bat gertatu zen: goi-mailako joskintza. Charles Frederick Worth ingelesa izan zen Parisen aldaketa honen aitzindari, berak sinatu baitzituen lehendabizikoz bere kreazio edo modelo propioak XX. mendearen hasieran³⁸. Honekin batera, 1900ean oihartzun eta arrakasta handia lortu zituen Pariseko Erakusketa Unibertsala ospatu zuten. Ordutik, markak, desfileak eta moda-

36. ROBERTS, Helene E., "The Exquisite Slave: The Role of Clothes in the Making of the Victorian Woman", In: *Signs* 2, Chicago: The University of Chicago Press, 1977; 554-569. orr.

37. NUGENT, *op.cit.*, 178. or.

38. BLACKMAN, Cally, 100 años de moda, Bartzelona: Blume, 2012; 10. or.

denboraldiak (urte-sasioaren arabekoak) sortzen hasi ziren³⁹. Modak nolabaiteko balioa eta izen ona lortu zuen. Ordura arte, sastreak eta joskinak anonimoak izaten ziren eta bezeroen agindupean lan egiten zuten baina gerora diseinatzaile eta artista bilakatu ziren⁴⁰. Beraien funtzioak edo paperak bira bat emango zuen eta hori da *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k “*La moda en París*” artikuluan azaltzen edo baieztatzen diguna:

*Al llegar, a cada principio de estación, la actividad que reina en todas las casas de costura, es, verdaderamente prodigiosa, inusita. La mujer coqueta, espera siempre con impaciencia, los decretos sagrados de nuestros creadores de modelos. (...) Las nuevas colecciones nos dicen ya, lo que debemos llevar durante la primavera y el verano próximos.*⁴¹

Beste salto esanguratsu bat estilo femeninoaren berriztapenean eman zen. Modak izaera lasaia, malgua eta naturala bereganatu zuen, “*condición sine qua non para el nuevo estilo de vida*”⁴². Beste hitz batzuetan, emakume eredu aldatu zenez, moda aldaketa horretara egokitu behar zen atzean ez gelditzeko. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n agertzen den emakume modernoaren janzkera ulertzeko, komenigarria litzateke denboran atzera egitea hogeita hamar urteren buruan bizitako bilakaera ezagutzeko.

XIX. mendearen amaiera arte edo XX. mendearen hasiera arte, emakume aristokratek konjuntuko zurrinak eta bolumen zein apaindura handikoak (adibidez harribitxiak, lumak, loreak, bordatuak, tula etab. gehituz) janzen zituzten, pamela eta eguzkitakoa bezalako osagarriekin eta buruan ileordea ile naturalarekin nahastuta⁴³. Gonen bolumena puzteko merinakeak gehitzen zizkieten eta soinekoak oihal metro luzeekin osaturik zeuden. Gutxi balitz, gerruntzea erabiltzen zuten harea-erloju forma eskuratzeko. Elementu honek, bularrak, gerria, sabela eta toraxa estutzen zituen. Gerruntzeak gorputz organoen deformazioa eta birika, gibel eta bihotzeko gaixotasunak ekar zitzakeen⁴⁴. Osasunerako kaltegarria zen arren, hala agintzen zuten edertasun arauak. Horrez gain, gorputza leuna, argala, ahula eta zuria izan behar zen. Elementu guztien batasunak, mugimendua eta praktikotasuna galarazten zituzten⁴⁵. Ez

39. MANZANERA, Laura, *Del corsé al tanga: 100 años de moda en España*, Bartzelona: Ediciones Península, 2011; 19. or.

40. URREA GÓMEZ, Inmaculada, “La construcción de la marca personal de Coco Chanel a través de sus fotografías: Su aportación a la creación de la mujer moderna” (doktoretza-tesia, Universidad Pompeu Fabra, 2015), 25. or.

41. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 88. or.

42. DÍAZ FREIRE, José Javier, *op.cit.*, 253. or.

43. WATSON, Linda, *Siglo XX moda: Estudio del estilo de los últimos 100 años por década y diseñador*, en asociación con Vogue, Espainia: Edilupa Ediciones, S.L., 2004; 18. or.

44. URREA GÓMEZ, Inmaculada, *op.cit.*, 32. or.

45. DE BURGOS, CARMEN, *op.cit.*, 250. or.

zaio alferrik *femme ornée* edo emakume apaindua deitzen emakume eredu honi. Simone de Beauvoirren aburuz: “*no hay nada menos natural que vestirse de mujer*”⁴⁶. Eta horrela, estilo femenino klasiko honen gainbehera hasi zen.

Ondoren, 1914an Lehen Mundu Gerrak eztanda egin eta zeharka modan eragin zuen. Historialarien artean eztabaidagai da gertaera honek emakumeengan norainoko egiazko influentzia izan zuen baina polemikoa izanda ere, merezi du aipatzea. Orduan, gizonezkoak borrokatzera joan zirenez, lantegi eta enpresa industrial asko jornalari gabe gelditu ziren. Emakumeek postu horiek bete zituzten eta etxeko *breadwinner* bihurtu ziren gutxienez denboraldi batez⁴⁷. Baina ez feminismoaren edo askatasunaren izenean, baizik eta premiarenean. Nahi gabe izan zitekeen arren, guda ogibideek (erizaina, medikua, gidaria etab.) eta bestelako hutsuneek (fabrikak batez ere) modan osagai berriak gehitu zituzten: bombatxoak, lohihartzekoak, galtzak, uniforme militarrek...⁴⁸ Elementu protagonista prakak izan ziren. Gizonek beraien maskulinitatearen sinbolo bihurtu zuten praka eta arropa hau ez zen emakumeen esfera denetan orokortuko XX. mendearen amaierara arte.

Muturreneko kasuetan, moda androgino edo “maskulino” bat jaio zen “urte zoroetan” 1920ko hamarkadatik aurrera: ilea “mutilen erara”, lerro zuzeneko jantziak bularrak eta aldakak markatu gabe gelditzeko, galtzak, alkandorak etab. Estilo berri bat ez ezik, bizimodu berri bat ere ezagutu zuten. Estilo honen pertsonifikazio edo ordezkari esanguratsuenetariko bat Coco Chanel izan zen, oso emakume iraultzailea bere garairako. Frantzia joera honi *garçonne*⁴⁹ deitu zitzaion eta berriz ere Beauvoirren hitzak gogora ekarri: “*sin duda las ropas masculinas son también artificiales, pero más cómodas y sencillas, están pensadas para favorecer la acción y no para entorpecerla*”⁵⁰. Hala eta guztiz ere, “gizonezko” moda emakumeengan zabaldua ikusteko urteak beharko dira eta Espainiara korrante hau berandago iritsiko da, 30eko hamarkadan zehar alegia.

5.1 Guipúzcoa deportiva y aristocrática-ko emakume modernoaren moda (1926-1932)

Gauzak horrela, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k ez du estilo androginoa erakutsiko, bai ordea estilo horren esentzia edo mamia: funtzionalitatea eta praktikotasuna. Jada Eba Moderno aktibo eta dinamikoaren garaia da eta, beraz, bere bizimoduarekin bat egiten duen estilo berri baten garaia:

46. URREA GÓMEZ, Inmaculada, *op.cit.*, 37. or.

47. DE BURGOS, Carmen, *op.cit.*, 12. or.

48. BLACKMAN, Cally, *op.cit.*, 12. or.

49. Victor Margueritte idazlearen 1922ko La Garçonne eleberritik dator kontzeptua.

50. URREA GÓMEZ, Inmaculada, *op.cit.*, 37. or.

Se impone un modelo de sociedad mucho menos protocolario y formal. Desaparecen los sombreros y los parasoles, entran en decadencia los toldos y las pieles blancas. Los trajes de baño se abrevian y ciñen al cuerpo. La moda exige la falda corta en las mujeres y el vestir deportivo de los hombres para mayor libertad de movimientos. La práctica del deporte se extiende en la sociedad. Caen las barreras que distinguían y separaban los sexos⁵¹.

Erosotasuna eta xumetasuna izango dira orain modaren pilareak: “*Notamos una gran sencillez pero sin sequedad*”⁵². Kasurako, adibide argia da kapelena, izan ere, XIX. mendean dekorazio handiko (luma eta loreak gehienbat) pamelak eramaten ziren (Irudia 1) eta XX. mendearen hasieran txano oso sinpleak jarri ziren modan: “*ajustados a la cabeza y muy recortados sobre la frente*”⁵³ (Irudia 2 eta Irudia 3).

Irudia 1. 1910eko Pamela



Irudia 2. 1929ko kapela I



Irudia 3. 1929ko kapela II



51. AGUIRRE, Rafael, *op.cit.*, 122. or

52. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 88. or.

53. *Ibidem.*, 91. or.

Horretaz aparte, gorputza ez da presiopean egongo, arropa askeagoa izango delako, horregatik *“los tejidos, muy variados, se distinguen por su flexibilidad, adaptándose a todas las ‘draperies’ y a todos los movimientos”*⁵⁴. XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako jantziak estatikoak ziren Etxeko Aingeruaren funtsarekin bat egiten zutelako. Hau da, emakumeak esparru pribatura baztertuta zeuden eta errutina horrek ez zuen modan iraultza bat eskatzen. Lan ordaindu bat lortzeko, kirola praktikatzeko, automobilak gidatzeko, dantzatzera irtetzeko eta abarretarako eskubidea ez zuten heinean, modak ez zuen liberazio bat exijitzen. Orain berriz, mugimendua da giltza-hitza. Eba Modernoaren bizimodua aktiboa zen, nahi eta nahi ez moda berriztu behar zen emakume modernoaren parera jartzeko. Otto Wininger filosofo austriarrak esan zuen bezala *“ezin da Rolls Royce bat Gainsborough kapela batekin gidatu, gorputz-adar bat anputatu merinake batekin edo polora jolastu gerruntze batekin”*⁵⁵. Garrantzitsua da konturatzeari ez dela bakarrik kontu estetiko bat, baizik eta arropak emakumeek gizartean zuten paperaren berri ematen digula.

Gainera, emakumeek gorputza gehiago erakusteko aukera eskuratu zuten. XIX. mendean bular, bizkar, beso eta orkatilak estalita eramaten ziren eta kontrakoa eskandalu bat kontsideratzen zen. Ordea, puritanismo hori aldatzeaz zegoen: *“para la noche la espalda muy descotada, algunas veces hasta la cintura”*⁵⁶. Eta ez hori bakarrik, luze ezkutaturiko hankak eta eskoteak biluztea geroz eta onartuago zegoen gizartean (Irudia 4 eta Irudia 5). Joera honi *“el ‘devestido’ femenino”* deitu zitzaion⁵⁷ :

*Quando observamos la moda actual, impuesta por genio exótico a las doncellas de nuestra sociedad moderna, con sus atrevidos escotes y sus brazos desnudos, con esos vestidos ligerísimos, descaradamente ceñidos al cuerpo y terminados por cima de las rodillas*⁵⁸.

Guipúzcoa deportiva y aristocrática-ko *“Algunos aspectos del vestuario de los vascos en el siglo XIX”* erreportaiatik eratorritako pasarte hau Ramón de Berraondo idazle gipuzkoarrari dagokio⁵⁹, Eusko Abertzale Ekintza-ko (EAE) afiliatua izan zen eta Lehen Mundu Gerra ostean Donostiara lekualdatu zen. Gehienetan janzkera mota ezberdinen inguruan idazten zuen, oso aproposa izanik artikulu honetarako⁶⁰. Kasu honetan, testuaren zati batean, XIX. mendeko moda bere garaiko (1931ko alea) modarekin alderatzen du gaitzespen kutsu

54. *Ibidem.*, 88. or.

55. WATSON, Linda, *op.cit.*, 44. or.

56. *Ibidem.*, 88. or.

57. DÍAZ FREIRE, *op.cit.*, 225-258. orr.

58. *Guipúzcoa turística y aristocrática*, 6. zbk. (1931), 45. or.

59. Batzuetan Berraondok “Martín de Anguiozar” goitizena erabiltzen zuen sinatzeko. Ez ordea gure urtekariaren kasuan.

60. ESTORNÉS LASA, Bernardo, Berraondo, Ramón de. *Auñamendi Entziklopedia*, 2019.

batekin. Badirudi, euskaldun emakumeek kanpotik zetozen tendentzia lizunak praktikan jartzeak, adibidez soineko estuak edo mahuka motzak eramateak, desatsegin duela. Berraondo ez da euskal gizartean salbuespena izango, araua baizik eta askok, balore kontserbadoreak oinarri izanda, errezeloz begiratuko diete moda modernoari.

Irudia 4. Besoak agerian, 1928



Irudia 5. Hankak agerian, 1928



5.2 Moralitate aldaketa modan: sentsualitatea

Are gehiago, erotismoa eta erakargarritasuna positiboki baloratuak izango dira modan, betiere limiteak errespetatuz, oraindik aspektu hau naturalizatzeko eta guztiz onartua izateko prozesu eta lanketa luzea beharko baitira. Hala eta guztiz ere, emakumeak flirtean ibili zitezkeen, rol pasiboa alde batera utziz⁶¹. Lehen, gorputzaren eta desira sexualen autokontrola exijitzen zitzairen emakumeei. Bitartean, gizonak desleialtasunak izan zitzaizkien beren bikoteekiko, sozialki onartua baitzegoen gizonen natura poligamoa. Identitate sexual maskulinoa Don Juanaren eredutik oso gertu egoten jarraitzen zuen. Baina pentsaezina zen emakumeek gizonen jokabide berdina bereganatzea. Ordea, 1920ko hamarkadan erreforma sexuala eman zen eta emakumeek plazer sexualerako eskubidea lortu zuten. Ez zuten gogo sexuala ezkutatu behar, sustatu baizik. Orduan, emakumeek jarrera aldatu zuten eta ligatzera “ausartzen” zirela esan dezakegu. Aspektu honetan, emakumeak XX. mendearen lehen herenean gertatu zen “*devestido*”-az baliatu ziren lehen

61. DE BURGOS, Carmen, *op.cit.*, 257. or.

estaliak zeuden lepoa, bularrak, hankak eta besoak erakusteko⁶².

Ligatzeko jokoa pizteko emakume modernoek osagarri sentsualak gehitzen zizkieten konjuntuei: lumazko abanikoak, zigarroen ahokoak, perlazko lepoko luzeak, harribitxiak, galtzerdi oso gardenak, eskoteak aurretik eta atzetik, ehun elastikoak eta bestelakoak⁶³. Jarrera edo mentalitate aldaketa bat eman zen eta emakumeek beren instintu sexualak jarraitzea eta bultzatzea, gehiegikeriarik gabe, ondo ikusia zegoen. Seduktore papera interpretatu behar zuten baina zintzotasuna, diskrezioa eta duintasuna mantenduz. Batzuetan, aurrerapauso horiek, gizarteko sektore kontserbadoreenak haserrarazi eta aurkaritza bat sortzea eragiten zuen.

Dena den, ezin daiteke “iraultza sexual” gisa kalifikatu, heteronormatibitatea, familiaren egitura tradizionala eta emakumeen amodioa zein gogo sexualaren errepresioak errealtatea izaten jarraitzen zuelako. Aitzitik, tabu asko desagertu ziren eta emakumeek iniziatiba erakutsi zuten. Baina sentiberatasuna erotismo femeninoaren oinarritzat hartzen zen oraindik eta emakumeen ligatzeko jokabidea gizonena baino selektibo eta moderatuagoa izan behar zen⁶⁴.

6. KIROLAREN ERAGINA MODAN

Emakumeen emantzipazio eta independentziarako bidean, kirola elementu garrantzitsua izan zen. Alde batetik, teoria biologiko sexisten arabera, kirola egitea kaltegarria izan zitekeen emakumeentzako, izan ere, emakumeak seme-alabak erditzeko jaioak ziren eta esfortzu fisikoek eragin negatiboa izan zezaketen⁶⁵. Adibidez, Ramón y Cajal mediku espainiarra pentsamendu honetakoa zen. Modernitateak, gizonek menderatzen zuten esparru honetan, hots, kirolaren munduan, emakumezkoei arrail edo zirrikitu bat irekitzea lortu zuen. XX. mendearen hasieran, ohitura osasuntsuek eta gorputza lantzeko ariketek lortu zuten balio edo garrantziaren ondorio, kirola praktikatzeko zaletasuna eta joera handitu zen (tenisa, poloa, patinajea, hipika, igeriketa, badminton eta abar)⁶⁶. Gainera, XIX. mendean ez bezala, kirolak klase aberatsen pribilegio izateari utzi eta XX. mendean sozializazio bide gisa orokortu zen.

62. LLONA, Miren, “Los otros cuerpos disciplinados. Relaciones de género y estrategias de autocontrol del cuerpo femenino (primer tercio del siglo XX)”. In: *ARENAL* 14, Espainia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007; 82-102. orr.

63. WATSON, Linda, *op.cit.*, 42. or.

64. DAROS, William Roberto, “La mujer posmoderna y el machismo”. In: *Franciscanum* 162, Bogotá: Universidad de San Buenaventura, 2014; 113. or.

65. GARCÍA BONAFÉ, Milagros, El siglo XX. La revolución deportiva de las mujeres, In: *Apunts. Educación Física y Deportes* 64, 2001; 65. or.

66. ARTOLA, Miguel, *op.cit.*, 135. or.

Beste alde batetik, emakumezkoak kirola egiten hasteak, edertasun kanoneko arauak aldatu zituen eta gorputz landuak erakargarritasunaren ikur bihurtu ziren: “*edertasun indarra ta osasuna; itz batean esateko au da oraingo gazteriyaren pizkortasunaren buru dana*”⁶⁷. Kirola egitea ongizate sinbolotzat hartzen zen.

Ilido beretik jarraituz, kirola praktikatzeko janzkerak, kaleko modaren antzera, funtzionalitate eta “biluztasun” ideiei jarraiki, eboluzio bat ezagutu zuen. XIX. mendean kirola praktikatzeko arropa arrunta erabiltzen zenez, adibidez emakumeek alboz eseri behar zuten zaldiz ibiltzerakoan gona luzea zela eta, XX. mendean kirolak exijitzen zuen dinamismoarekin bat egiten zuten arropak produzitzeko beharizana jaio zen. Esate baterako, bizikletan aritzeko “*falda-pantalón*”-a asmatu zen emakumeentzako. Horregatik, hein handi batean baieztatu daiteke kirola kontuan hartu gabe ezinezkoa litzatekeela arropa informalaren arrakasta ulertzea⁶⁸.

6.1 Bainulariak

Bainulariek aurretik aipatutakoaren adibide garbia ematen digute. XIX. mendetik igeri egitea oso osasuntsua eta onuragarria zela pentsatzen zen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n sarritan Kontxako Hondartza dugu mintzagai eta aukera ematen digu Donostiako bainularien moda ezagutzeko.

XIX. mende amaieran eta XX. mendearen hasieran, bainujantzi femeninoak ez zeuden bainatzeko pentsatuak, gehienez ere oinak edo hankak uretan murgiltzeko baizik. Izan ere, emakumeen bainurako arropa soineko labur bat, gerruntzea eta artilezko galtza zabalek osatzen zuten. Kolore ilunak erabiliz gardentasunak ekiditzeko (Irudia 6 eta Irudia 7). Modelo hauek hain ziren pisutsuak, itotzeko arriskua altua zela. Ordea, gizonezkoen konjuntioak estuak eta irekiak ziren, emakumeentzako onartezinak zirelarik. Horregatik, 1907an Annette Kellerman australiar igerialaria bainujantzi maskulino baten antzeko bertsio bat janztera ausartu zenean, atxilotu egin zuten⁶⁹. Ikusi dezakegunez, oraindik puritanismoak agintzen zuten.

67. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 13. or.

68. RIELLO, Giorgio, Breve historia de la moda. Desde la Edad Media hasta la actualidad, Bartzelona: Gustavo Gili SL, 2016; 87-90. orr.

69. BIRKS, B., UNSAIN, J. M. eta Cristóbal Balenciaga Museoa, Bainujantziak Eta Gorputzaren Erakusketa: XX. Mendeko Historia Alternatiboa, Madril: Nerea, 2012; 16-22. orr.

Irudia 6. Bainujantzi modeloa,
1895-1896



Irudia 7. Bainujantzi modeloa,
1915



Aitzitik, denborak aurrera egin ahala, 20ko hamarkadan igeriketa jendarteratu eta bainulari kopuruak gora egin zuen. Orduan, beharrezkoak ziren emakumeentzako bainujantzi apropos, mesedegarri eta erabilgarriagoak: *“nada necesita ocultar el traje de baño, que se acorta y se reduce, avergonzado de su antigua avaricia. Los descotes de brazos, cuellos y pechugas, desafían al nácar de las conchas”*⁷⁰. Hondartzan ere, modak geruzak edo estaldurak kendu zituen eta gorputza askeago utzi zuen. Material elastikoek artilea ordezkatu zuten eta horrek trajeak gorputzera moldatzea eta estutzea eragin zuen: *“los trajes de baño modelaban amorosamente los cuerpos jóvenes y finos”*. Horrela sortu zen maillota, eskote zabaleko eta luzera laburreko modeloa. Kaleko jantzien “biluzteko” joera aplikatu zen itsasoan ere, arrazoi praktikoak eta moralitate aldaketa zirela medio.

Primo de Riveraren erregimenak maillotaren aurkako jazarpena egin zuen, adibidez Donostian eta Bartzelonan, eremu aurrerratuagoak izateagatik. Poliziak hondartzatik paseatzen ziren bainujantziak erregela batekin neurtzeko eta zigorrak jartzeko baimena zeukaten. Beste herrialde batzuetan berriz, Frantzian esate baterako, maillota eramatea arrunta zen eta oso onartua zegoen⁷¹. Dena dela, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko aleetan maillotdun emakumeen argazkiak anitzak dira (Irudia 8), beste behin urtekariak Donostiaren izaera permisiboa erakusten duelarik: *“Es la hora del aperitivo en La Perla y va llenándose de público el bar (...) mujercitas en maillot con gorra de club náutico*

70. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 73. or.

71. *Ibidem.*, 54. or.

y la espalda y los brazos color de maleta".⁷² Atzeritarrek ekartzen zituzten moda modernoak Donostiara, baina estatua ez ikusiarena egin edo toleranteagoa izaten zen turismoak ekartzen zizkion irabaziengatik.

Irudia 8. Donostiako bainularia,
1931



Irudia 9. Urumeako bainulariak,
1929



Hala eta guztiz ere, nahiz eta aurrerapen positiboak eta transformazioak eman, gizartea sexista eta diskriminatzailea zen emakumeekiko. Alde batetik, arau moralak generoaren arabekoak ziren, izan ere, bainujantzi maskulino eta femeninoen arteko konparazio bat eginez gero, gizonek askatasun handiagoz erakus zitzaketen beren gorputz erdi-biluziak (Irudia 9), emakumeengan tabu zen bitartean:

*"Aun en la más avanzada de sus playas, San Sebastián -concluía la revista [Sexualidad]-, si bien no existe la separación de sexos, está prohibido terminantemente, considerándolo como un ataque a la moral, el baño de sol y el paseo por la playa sin capa protectora"*⁷³

Bestalde, Guipúzcoa deportiva y aristocrática-k emakumeak polit, xelebre eta dotore irudikatzen ditu hondartzan:

*La hora del baño. La graciosa desenvoltura de las lindas damitas en sus preciosos trajes playeros, las conversaciones ligeras, frívolas o románticas, los proyectos del día, son momentos de inefable felicidad.*⁷⁴

72. Guipúzcoa turística y aristocrática, 6. zbk. (1931), 30. or

73. DÍAZ FREIRE, *op.cit.*, 231. or.

74. *Ibidem.*, 28. or.

Gainera, “-ita” atzizkia erabiltzerakoan, emakumeak gutxietsi eta txikiagotzen ditu. Seguruenik testua ez zen apropos modu matxista batean konposatua izan, baina jakinarazten digu generoen irudi tradizionalak erroturik jarraitzen zuela. Nabaritzen da berdintasunaren diskurtsoak ez zuela guztiz barrentzea eta mantentzea lortu.

Hondartzarekin harremanduta, modan jarri zen azal beltzarana edukitzea. Ordura arte, saltzaile ibiltariak eta nekazariak ezaugarritzen zituen bereizgarria zen, baina gero osasuntsu egotearen zeinu bilakatu zen⁷⁵: *“el sol es oro nuevo, nítido, al encender el mar, y pone matices y reflejos de maravilla en la piel de las mujeres, brillante y húmeda por el agua del mar, de este mar de agosto -sumisión, armonía, alegría-”*. Coco Chanelek adibidez, moda hau imitatu eta hedatu zuen. Beltzaran egotea bilatzea ezaugarri berria zen, XX. mende hasieran zuritasuna bilatzen baitzen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko kosmetika produktuen iragarkiek ere tendentzia honen berri ematen digute: *“Cuide su cutis sometido constantemente a los efectos del sol y del aire. CREMA CALBER. De pureza absoluta sus componentes, conserva su epidermis suave y tersa, presevándola de arrugas y vejez prematura”*.⁷⁶ Aldi berean, adierazgarria izanik gaztetasuna mantentzeko emakumeengan zegoen presioa eta ardura ulertzeko.

6.2 Tenis-jokalariak

Beste adibide esanguratsu bat tenis-jokalariena dugu. Igeriketaz gain, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k azpimarratzen duen beste kirol ospetsuenetariko bat baliabide ekonomiko aberatseko jendearen artean tenisa da:

*Desde Julio a Septiembre la gentil silueta de las muchachas deportivas anima el fondo de las playas y jardines. Ahora, al volver el cronista de un partido de tennis, advierte que ninguna alegoría de la estación puede ser más bella que la plasmada por cualquiera de esas muchachas, ágiles, fuertes, vestidas de blanco y tomadas de sol.*⁷⁷

XX. mendearen hasieran, tenislarien arropak ez ziren bat ere egokiak tenisera jokatzeko, bainujantziak bainatzeko pentsatuak ez zeuden bezalaxe. Tenisean, konjuntio luzeek, lepotik oinetara estaltzen zituzten gorputzak eta mugimendua eragozten edo zailtzen zuten. Horrez gain, kapelak eta lepokoak jantzen zituzten apaingarri moduan (Irudia 10). Ostera, 20ko hamarkadarako jada gonak laburtu, ilea moztu eta zinta batekin atzera bota, eta tirantedun kamisetak jarri zituzten emakume tenislariak (Irudia 11):

75. URREA GÓMEZ, Inmaculada, *op.cit.*, 72. or.

76. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 3. zbk. (1928), 30. or.

77. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 5. zbk. (1930), 10. or.

*Bajo los sutiles trajes que ahora llevan, con levedad de clásicos peplos, las formas insinúan su femenino atractivo. Y los pañuelos de seda que sujetan, a modo de tiaras, las cortas melenas (...) Sobre los trajes blancos y transparentes se han puesto las bellas jugadoras jerseys y abrigos.*⁷⁸

Irudia 10. Tenislari frantsesa,
1906



Irudia 11. Tenislari frantsesa,
1926



Berriro ere, esparru honetan aldaketa zentzudun bat gertatu zen arropa aproposagoa erabiltzerakoan. Gainera, aurrerabide eta zeinu ona zen emakumeek gero eta parte-hartze nabarmenagoa eta ikusgaitasun handiagoa izatea kirolen munduan. Adibidez, Suzanne Lenglen tenislaria behin baino gehiagotan aipatzen du urtekariak, adieraziz emakumeek zeresana eta posizio altu batera iristeko aukera zutela tenisean. Esanahi garrantzitsua dauka figura femenino bat kirola bezalako esparru nagusiki maskulino batean nabarmentzea, frogatzen duelako gizartea aldatzen zegoela.

Ordea, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko artikulu batek azaleratzen du zer nolako onarpena jaso zuten eta zer mezu igortzen zuten tenis-partidak ikusleen artean. Harmailako gizon baten aburuz, *“las jugadoras de por sí son el mejor de los espectáculos”* eta *“lo probable es que nada agradecieran tanto, evocaciones aparte, como un piropo”*. Honela, jokalaria sexualizatzen ditu eta seduzituak izatera itxaroten egongo balira bezala hartzen ditu, objektu bilakatuz. Gainera, jarraian adierazten du: *“ved como aquella alza varonilmente la pierna”*, zeharka aitortuz kirola, dinamismoa eta mugimendua genero

⁷⁸. *Ibidem.*, 10. or.

maskulinoari atxikitzen zitzaizkiola⁷⁹.

7. OHITURA FEMENINO TRADIZIONALEN ALDAKETA

XX. mendearen hasieran emakumeak *oikos-etik* *agora-ra*, hots, etxekotasunetik esparru publikora, igaro ziren espazio berrietara egokitzerakoan. Emakume modernoek ustez gizonei zegozkien jarduera batzuk bereganatu eta praktikan jarri zituzten. Clara Campoamor feministaren hitzetan “*toda mujer, por el hecho de producirse con acierto en terrenos a que en otro tiempo le fuera vedado el acceso, revoluciona, transforma la sociedad*”⁸⁰. Egia da, gehienbat aspektu sozialean gertatu zela aurrerapena eta gutxiago edo ezer ere ez aspektu politiko eta laboral-ekonomikoan baina, hala ere, kontuan hartzekoa eta garrantzitsua da.

Adibidez, aurretik azaldutako kirolaren kasua erakusgarri argia da baina ez bakarra. Esate baterako, erretzea edo alkohola edatea usadio maskulinoztat hartzen ziren eta txarto ikusia zegoen emakumeengan. Orain berriz, horrela adierazten du *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k:

*Los caballeros se confiaban al oído: ¡Oh, es una mujer que fuma cigarrillos egipcios, bebe ‘cock-tails’ americanos!, y con esta frase se quedaba dicho todo. (...) Pero cómo esta bebida americana era grata al paladar, y permitía a las muchachas lucir muy bien la silueta sobre los altos taburetes, un día quedó decidido que eso del ‘cock-tail’ era muy elegante y muy correcto.*⁸¹

Irudia 12. Emakumeak tabernan, 1930.



79. *Ibidem.*, 10. or.

80. LLONA, Miren, “La señorita y las otras. Fronteras de clase y subjetividad en el primer tercio del siglo XX en España”, In: *Autoridad, poder e influencia. Mujeres que hacen historia*, Bartzelona: Icaria, 2017; 114. or.

81. *Guipúzcoa turística y aristocrática*, 7. zbk. (1932), 7. or.

Alde batetik, kontuan hartzeko ezaugarria da ohiturak aldatzea eta, batez ere, emakumeek aurretik galaraziak zituzten bizioak probatu ahal izatea. Behintzat dastatzea edo ez dastatzea erabakitzeko aukera izatea gizartearen epaiketarik gabe. Alabaina, beste alde batetik, arazoa da emakumeak begiesteko subjektutzat hartzen zituztela gizonek. Hau da, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko aurreko pasarteak ulertarazten du, emakumeek koktelak edatea onargarria bihurtu zela gizonek hauen gorputzak tabernan mirestu ahal izateko eta ez beraien parekotzat hartzen zituztelako.

Are gehiago, eta bukatzeko, beste adibide bat gidatzea dugu. Errepikakorrek dira *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n automobilen iragarkiak non maiz protagonistak emakumezkoak diren: “*Con el servo freno Deware Repusseau un pie de mujer para en seco los caballos más fogosos... los de su automóvil. Hágalo montar en su automóvil. Le va en ello la vida*”⁸² (Irudia 13). Edo Citroën markaren hurrengoa: “*Un C-6 realiza la belleza de su poseedora*”⁸³ (Irudia 14).

Irudia 13. Kotxe iragarkia I



Irudia 14. Kotxe iragarkia II



Modu honetara, hots, arestian aipatu diren aldaketen ondorio, genero femeninoa eta maskulinoaren arteko oreka nolabait galtzen zen eta ohitura anitz kolokan jartzen ziren. Imajina dezagun balantza inklinatu bat, diagonal itxurarekin. Goialdean gizonak kokatzen dira eta behealdean emakumeak. Ez dago berdintasunik baizik eta diskriminazio handi bat. Gizonek jo dute sabaia,

82. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 1. zbk. (1926), 57. or.

83. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1929), 102. or.

pribilegiadunak eta eskubidedunak baitira⁸⁴, baina emakumeek distantzia luzea dute gizonen altuerara iritsi arte. Gizonak boterea eta kontrola dute bizitzako aspektu guztietan (soziala, ekonomikoa, politikoa etab.) eta emakumeak bigarren maila batean daude. Oraindik asko falta da balantza zuzena edo horizontala izateko. Sexuen rol eta estereotipo tradizionalak balantza hori sostengatu eta babesten dute.

Baina XX. mendearen lehen heren honetan, emakumeak ikusmolde kontserbadoreak deseraikitzen hasten dira. Bitartean, ez da halako aldaketarik gertatzen sexu maskulinoaren irudian, ez dutelako emakumeek bezalako emantzipazio prozesurik behar. Horregatik, emakumeek aurrera egiten dute eta balantzaren inklinazioa arinki mugitzen da. Aldi berean emakume eta gizonen eskema tradizionala desegiten doa, emakumeek gizonen zegozkien espazioak eta ezaugarriak bereganatzeagatik. Emakumezkoen modak helarazten zuen mezua, emakume arketipoa eraldatzen zegoela zen, emakumezkoen funtzioa gizartean handitzen zihoalako. Emakumeei atxikitzen zitzaizkien izaera eboluzionatzen zegoen eta modernizazio horrek “ordena” apurtzen zuen. Beraz, modak islatzen duena emakume “berri” baten aurrean gaudela litzake.

8. AURKARITZA

Emakumezkoen emantzipazioaren hastapenak euskal gizarte kontserbadorearen (batez ere alde maskulinoaren) sektore batzuk deseroso, haserre edo eskandalizatuta sentiarazi zituen. Emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko balantza emakumeen mesedera desorekatzearen beldur egongo bailiran. Intolerantzia edo gaitzespen sentimendua modan ere islatu zen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k erakusten du moda femenino modernoak mugak eta erantzun negatiboak jaso zituela Donostian. Gipuzkoako hiriburua nahiko irekia zen arren, ez zen Espainiako pentsamendu itxi eta zaharkitutik libratzen.

Lehenengo adibidea erlijioarekin harremandutakoa dugu. Eliza katolikoak influentzia nabarmena zuen eta zer zen zuzena, errespetuzkoa, onargarria edo egokia markatzen zuen, baita janzkeran ere. Elizak pertsonen integritatea eta onestasuna zaintzeko beharra zeukan eta emakumeek eskoteak, tiranteak eta belaunetik gorako gonak janztea debekatu nahi zuten⁸⁵. Frantzia Espainian baino tolerantzia eta libertate handiagoa zegoen arropari zegokionean eta euskal kostak frantses bisitari ugari jasotzen zituen, zeintzuek tendentzia deigarri eta ausartenekin “kutsatzen” zuten euskal biztanleria. Kontserbadoreek azkar

84. Bakarrik ezaugarri jakin batzuk betetzen zituzten gizonak ziren pribilegiadunak (orientazio sexuala, jatorria, erlijioa, klase soziala eta abarren arabera). Baina ez zeuden, emakumeak ez bezala, generoagatik diskriminatutak.

85. DÍAZ FREIRE, *op.cit.*, 239. or.

erreakzionatu zuten gaizki-ulertuak ekiditeko eta turistak jakinaren gainean jartzeko asmoz:

(...) pero como San Sebastián es una dama vasca de muchos y nobles blasones, condescende y hasta patrocina modernas innovaciones sin que se debiliten sus energías ante el cumplimiento del deber y para evitar disgustos a los veraneantes que allí dirijan sus pasos el próximo mes de Julio, nos permitimos recordarles que la atractiva ciudad será inflexible y hará cumplir cuanto manda y aconseja La Santa Sede, no permitiendo que las señoras penetren en sus templos incorrectamente vestidas. Así pues, al vestuario, hay que agregar un trajecito largo, que le falten solamente 25 centímetros para llegar al suelo, que suba hasta la garganta y descienda hasta las muñecas de ambos brazos.⁸⁶

Izan ere, udatiar emigrazioaren izaera lekuko jendearena baino aurrera-tuagoa zen zentzu askotan, Espainian emakumearen askapenerako bidea berantiarra eta ahulagoa izan baitzen⁸⁷. Horregatik arruntak ziren erantzun negatiboak eta ez bakarrik gizonen aldetik, emakume tradizionalak ere gogor kritikatzten zituzten emakume modernoak. Adibidez 1926ko aletik eratorritako testu honen autorea Maria de Perales da.

Emakumeekiko ideia atzerakoien pertsonifikazio borobila dugu Engracio de Aranzadi edo “Kizkitza”-ren eskutik datorkiguna. Kizkitzak, *Euzkadi* egunkariaren zuzendariak eta euskal nazionalismoaren ideologoak, Donostia “*inmensa casa de placer*” gisa deskribatu zuen. Turistei buruz zera zioen: “*muchedumbres que llegaban hambrientas de carne*” edo “*jóvenes verduleras que llegaban como reinas de los mercados de París*”. Atzeritarrek, eta bereziki emakumeek, euskal ingurunea kutsatu eta galbideratu egingo balute bezala. Gainera, etengabeko festa, gozamina, jokoa eta horrek mugitzen zuen dirua guztiz kritikatzten zituen. Kizkitzaren arabera, Donostiak euskal tradizioa gutxietsi edo zapaltzen zuen eta hiriko giroa katolikoentzako dentsua eta gogaikarria zela baieztatzen zuen⁸⁸. Kizkitza bezalako nazionalistek kosmopolitismoa eta turismoa gaitzesten zituzten Donostiak euskal sena galtzearen errudunak zirela pentsatzeagatik⁸⁹. Interesgarria da bere ikuspuntua partekatzea ziurrenik beste askok iritzi bera izango zutelako.

Ildo beretik jarraituz, Mateo Múgica-k, Gasteizeko apezpikuak, pastoral batean zioen inmoralitatea modan babestu zela eta emakumeek “*no tienen*

86. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 1. zbk. (1926), 35. or.

87. DÍEZ FUENTES, José Manuel, “República y primer franquismo: la mujer española entre el esplendor y la miseria, 1930-1950”, In: *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social*, 3. zbk. (1995), 23. or.

88. ARANZADI Y ETXEBERRIA, Engracio, Ereintza: Siembra de Nacionalismo Vasco 1894-1912, Valladolid: Maxtor, 2010; 174-177. orr.

89. ARTOLA, Miguel, *op.cit.*, 136-137. orr.

derecho alguno para ir por calles, paseos y plazas, etc., provocando tentaciones y pecados en los varones"⁹⁰. Aurretik aipatutako "devestido"-aren kontra, estaltzera derrigortzen zituztelarik, emakumeen gorputza sexualizatzen zutelako.

Bestalde, horren aurrean urtekariko artikuluko batek proposatzen duena zera da: "*<<Liga para el bien>> integrada por las elegantes, que desde su altura, impondrán la moda de buen tono, en vez de copiar la que lucen mujeres desdichadas en un plano inferior de la sociedad*"⁹¹.

Hau da, moda aurrerakoa eta berritzailea bilakatzen ari zen, emakumeei askatasun handiagoa emanez gorputza erakutsi eta zer jantzi erabakitzerako orduan, eta horrek, talde batzuen ustetan, moralitatearen aurka egiten zuen. Beraz, erreakzio antitetiko bat gauzatu zen.

Bigarren adibidea konparaketa batean datza, hain zuzen, Donostia (Espainia) eta aldameneko Biarritzen (Frantzia) artean. Azken honetan, moda modu jostalariagoan bizi eta adierazpen bide gisa erabiltzen zen, limiteak zabalagoak izanik. Lehenengoan berriz, estilo tradizionalagoa jarraitzen zen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ren arabera:

[Biarritz] *todas las manifestaciones de refinamiento, de lujo y también de extravagancia; no falta en ella gente que se entrega a las mayores excentricidades para llamar la atención de los demás, prefiriendo la crítica más acerba al pasar desapercibida. También las modas más estrafalarias tienen adeptos (...). No faltan mujeres que por seguir la moda, no se preocupan de si conviene a sus condiciones físicas, de si les sienta bien tal forma de vestido o de sombrero y la cuestión para ellas es ir trajeada con la última novedad (...) o se queda la señora demodé*⁹².

Laburbilduz, kritika egiten dio Biarritzi modarekin esperimentatzeagatik edo nobedade ausartenak probatzeagatik. Asaldatuak aurkezten dira eta gaitzetsi egiten dute auzokideen xelebrekeria. Gainera, aldizkariak ulertarazten du emakumeak modara egokitu behar zirela eta ez alderantziz. Beraz, moda askapen eta adierazpen tresna izan daitekeen bezala, inposizio modu bat izan daiteke aldi berean. Kasu honetan ere, Donostiaren alde kontserbadorea agerian gelditzen delarik.

90. DÍAZ FREIRE, *op.cit.*, 225-258. orr.

91. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 1. zbk. (1926), 35. or.

92. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 3. zbk. (1928), 58. or.

9. ONDORIOAK

Guipúzcoa deportiva y aristocrática urtekaria *caché* eta luxuzko kostalde frantses-euskaldunaren ispilua zen. Donostia ez zen izar bakarra, aldizkariak batetik Hondarribia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta bestetik Biarritz, San Juan de Luz zein Hendaiaren promozioa egiten baitzuen. Bakarra agian ez, baina Biarritzekin batera famatuena bai. Donostia Espainiako altxorra zen eta, turismoari esker irabaziak emateaz gain, irudi positibo eta erakargarri bat eskaintzen zuen kanpora begira. Horrek posizio berezi eta desberdindu bat lortuarazi zion. Donostia gustu fineko publiko dotoreari begira diseinatua zegoen eta estatus altuko turistak estimu handitan zituen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k ere bide berdina jarraitzen zuen, baliabide ekonomiko aberatseko bezeroak edo irakurleak sustatuz.

Kontziente izan behar gara ikerlan honen subjektua hiriko emakume pribilegiadunak direla. Izan ere, dirurik edo aukerarik ez daukan emakume langile baten errealitatea eta egunerokotasuna oso desberdina izan zitekeen. Adibidez, emakume askok ezin zuten azken moda jarraitu, tenisera apuntatu edo kotxe bat izan. Hau da, baldintza eta toki jakin batean kokatzen gara, murriztua dena eta beraz, ezin dira gutxi batzuen bizimoduaren ezaugarriak orokortu. Edo mendiarteko herrixka batean, kostaldea ez bezala, itxia eta isolatua dagoena, egoera eta ingurugiroa beste mundu bat izango zen. Seguruenik Donostia baino kontserbadoreagoak izango ziren, ez baitzeukaten aniztasunik ezta kontakturik beste herrialde batzuekin, Donostiak Frantziarekin zuen bezala. Gainera, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko edukia da aztergai nagusia eta jakin badakigu bertan proposatzen diren jarduerak jende dirudunarentzako pentsatuak daudela. Aristokrata, zinemako aktore, eliteko kirolari eta abarren irudiak arruntak dira urtekarian, eta ez hainbeste emakume nekazarienak edo ehungintzan lan egiten zutenak, adibidez. Aldizkariaren izaera edo natura maila altukoa da eta bere funtzioa Donostiak daukan “bikainena” erakustea da. Beraz, eta laburbiltzeko, gutxiengo batzuen istorioa aurkezten du artikulua.

XX. mendearen lehen herenean, oso epe laburrean, emakumearen ereduak eta modak salto esanguratsua eman zuten. Eta ez zen kasualitatea izan batera gertatzea, batak bestea elikatzen duelako. Moda adierazpide izanik, emakumeengan jarrera aldaketa bat gertatu zenean, emakumeen itxura ere aldatu zen. Honela, modak emakumeek helarazi nahi zutenarekin bat egiten zuen. Komunikabideak, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ren moduan, modernitatearen ikur eta epizentro bihurtu zen emakume modelo berriaz baliatu ziren. Emakume horrek nobedadea eta garapena errepresentatzen zituelako. Baina, era berean, marketin hori onuragarria izan zen emakumeentzako emakumearen eredu berriztatua zabaltzen eta baieztatzen lagundu zuelako.

Emakumeek emantzipazioaren premia zuten, “*el segundo sexo*” izanik, diskriminazio eta desparekotasun maila batean aurkitzen zirelako. Eboluzio

hori ulertzeko komenigarria da aurreko eta osteko “produktua” edo emaitza konparatzea. Horregatik artikuluan Etxeko Aingeruaren eta Eba Modernoaren figurak azaldu dira. Horrek ez du esan nahi eredu bata edo bestea nolakotasun zehatz batzuei loturik zegoela, askoz konplexuagoa eta difusoagoa baita. Hots, ezin dira XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako emakume guztiak Etxeko Aingeruaren modeloaren baitan sartu ezta XX. mendeko emakume guztiak modernotzat hartu. Hala ere, ideia bat egiteko baliagarriak dira, salbuespenak salbuespen.

Beraz, errepikatu dugu aldaketa edo transformazio bat eman zela emakume ereduari dagokionean eta artikuluan frogatuta gelditu da. Emakume modernoa zentzu askotan independenteagoa eta askeagoa da. Adibidez, bizkarra, hankak, lepoa, bularrak eta besoak erakustea, ilea labur moztea, ligatzerakoan inizatiba hartzea, kotxeak gidatzea, koktelak edatea edo igeriketan, golfetan eta beste edozein kiroletan lagunartean zein modu profesionalean jolastea, denak aukera berriak ziren emakumeentzako. Horiek guztiak *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n agertzen dira. Hala ere, ez du esan nahi hobea denik. Amatasuna eta etxekotasuna oso zilegiak dira aukeratuak eta ez inposatuak edo egokituak badira. Edo arroparen kasuan, orkatiletarainoko gonak, mahuka luzeak, pamela handiak, gerruntzea etab. jantzi nahi dituenak, jantzi ditzala. Inportanteena aukera ezberdinak edukita erabakitzeko eskubidea izatea da.

Aitzitik, emakume modernoaren bizimodu dinamikoarentzako saihetsezina zen *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k erakusten duen estilo aldaketa hori, ezinezkoa baitzen konjunto zurrin eta pisutsuekin mugitzea. Bestela, bainulariek itotzeko eta tenislariek estropezu egiteko arriskuarekin jarraituko zuten. Edo ez ziren automobilean sartzeko gai izango lumaz eta lorez beteriko kapelekin. Praktikotasuna eta erosotasuna zentzuzko eta beharrezko aldaketak ziren. XIX. mende amaierako konjuntuek emakumeak harrapatzen eta “immobilizatzen” zituzten. 1920-1930 hamarkadetako moda modernoak kopiatu, erabili, hedatu, disfrutatu eta mantendu bazen, arrazoi sinple batengatik izan zen: aproposa eta lagungarria zelako.

Sektore tradizionalistek emakumearen modernizazioaren aurrean desatseginez erantzun zuten. Erreakzioa koherentea edo kontsekuentea zen gizartea ez zegoelako prest ezta kontzientziatua sexuen araberako eskema edo egitura dimorfista klasikoa apurtzeko. Mehatxu bat bezala hartu zuten eta deseroso sentiarazten zituen. Oraindik emakumeen emantzipazioaren hastapena izanda, ez zegoen horren inguruko “heziketa” bat. Horregatik topa ditzakegu *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n zenbait komentario negatibo edo anbiguotasun emakumeen emantzipazioarekiko.

Alde batetik, gizonezkoek beraien hegemonia eta “monopolioa” arriskuan sumatu zuten, besteak beste, tabernan, kiroletan, errepideetan etab. Gizonek bizitzako esparru oro kontrolatzen zuten, emakumeak barne, eta botere hori

galtzen ikusteak haserrarazi egiten zituen. Gainera, modaren “devestido”-a immoralitate hutsa zen askorentzat. Horren adibide ditugu Ramón de Berraondo, Engracio Aranzadi eta Múgica apezpikua. Eskandalu bat iruditzen zitzaien eskoteak edo belaunetik gorako gonak eramatea. Ez zen emakume zintzo eta duinetatik espero zutena. Zentsu honetan, erlijio katolikoak indar handia zuen eta emakumeek estalita janztea aldarrikatzen zuten, probokazioak eragozteko asmoz. Beste alde batetik, erregimen diktatoriala pentsamendu kontserbadorekoa zen arren, Donostian tolerantzia eta permisibitate gehiago baimentzen zen. Esate baterako, Primo de Riverak maillotaren aurkako jazarpena burutu zuen baina *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n Kontxako Hondartzako argazkiek bainujantzi modelo hori daramaten emakumeak erakusten dituzte.

Hala ere, emakume modernoaren ereduak ez zuen gizartean barrentzea, orokortzea eta irautea lortu. Etxekotasunera baztertzen zen emakume modeloa ahuldu zen baina prototipo nagusia izaten jarraitu zuen. Gainera, posibilitate bat da janzkeran eta esparru publiko edo sozialean emakumeek bizitako aurrerapausoak eta aldaketak azalekoak izatea, emakumeen eskubide politiko eta ekonomikoak ezkutuan jarraitzen zuten bitartean. Horregatik, ezin genezake bizi zuten askapena idealizatu, bere argi-ilunak eta anbiguotasunak baititu.

10. BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE, Rafael, El turismo en el País Vasco, Donostia: Txertoa, 1995.

ARANZADI Y ETXEBERRIA, Engracio. Ereintza: Siembra de Nacionalismo Vasco 1894-1912. Valladolid: Maxtor, 2010.

ARTOLA, Miguel, Donostiaren Historia, Donostia: Nerea, 2001.

BIRKS, B., UNSAIN, J. M. eta Cristóbal Balenciaga Museoa. Bainujantziak Eta Gorputzaren Erakusketa: XX. Mendeko Historia Alternatiboa. Madril: Nerea, 2012.

BLACKMAN, Cally. 100 años de moda. Bartzelona: Blume, 2012.

DAROS, William Roberto, “La mujer posmoderna y el machismo”. In: *Franciscanum* 162, Bogotá: Universidad de San Buenaventura, 2014.

DE BURGOS, Carmen. La mujer moderna y sus derechos. Valentzia: Editorial Sempere, 1927.

DÍAZ FREIRE, José Javier, “La Reforma de la vida cotidiana y el cuerpo femenino durante la dictadura de Primo de Rivera”. In: *El rumor de lo cotidiano : estudios sobre el País Vasco contemporáneo*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999; 225-258. orr.

DÍAZ NOCI, Javier, Historia del Periodismo Vasco (1600-2010). In: *Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación* 13, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012.

DÍEZ FUENTES, José Manuel. “República y primer franquismo: la mujer española entre el esplendor y la miseria, 1930-1950”. In: *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social*, 3. zbk. (1995)

ENTWISTLE, Joanne, El cuerpo y la moda. Una visión sociológica, Bartzelona: Paidós, 2002.

ESTORNÉS LASA, Bernardo, Berraondo, Ramón de. Auñamendi Entziklopedia, 2019.

GARCÍA BONAFÉ, Milagros. “El siglo XX. La revolución deportiva de las mujeres”. In: *Apunts. Educación Física y Deportes* 64, 2001.

Guipúzcoa deportiva y aristocrática, 1926-1932

LLONA, Miren, “Los otros cuerpos disciplinados. Relaciones de género y estrategias de autocontrol del cuerpo femenino (primer tercio del siglo XX)”. In: *ARENAL 14*, Espainia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007.

LLONA, Miren, “La señorita y las otras. Fronteras de clase y subjetividad en el primer tercio del siglo XX en España”, In: *Autoridad, poder e influencia. Mujeres que hacen historia*, Bartzelona: Icaria, 2017.

LURIE, Alison, El lenguaje de la moda. Una interpretación de las formas de vestir, Madril: Paidós, 1994

MANZANERA, Laura. Del corsé al tanga: 100 años de moda en España. Bartzelona: Ediciones Península, 2011.

NASH, Mary. Mujeres En El Mundo: Historia, Retos Y Movimientos. Madril: Alianza Editorial, 2012.

NUGENT, Elinor, The Relationship of Fashion in Women's Dress to Selected Aspects of Social Change From 1850 to 1950, Louisiana: Louisiana State University, 1962

ORTEGA LÓPEZ, Teresa María, “Mujeres y II República. *Redefinición y politización* del modelo de feminidad por las cultura antiliberales españolas”, In: *FEMINISMO/S 16*, 2010.

RIELLO, Giorgio, Breve historia de la moda. Desde la Edad Media hasta la actualidad, Bartzelona: Gustavo Gili SL, 2016

RIERA, Marta, 200 Años De Ilustración De Moda En España, Bartzelona: Comanegra, 2014

ROBERTS, Helene E., “The Exquisite Slave: The Role of Clothes in the Making of the Victorian Woman”, In: *Signs 2*, Chicago: The University of Chicago Press, 1977

TORTORA, Phyllis G., “History and Development of Fashion”, In: *Berg Encyclopedia of World Dress and Fashion 10*, Oxford: Berg Publishers, 2010

URREA GÓMEZ, Inmaculada. “La construcción de la marca personal de Coco Chanel a través de sus fotografías: Su aportación a la creación de la mujer moderna”. Doktoretza-tesia. Bartzelona: Universidad Pompeu Fabra, 2015.

WATSON, Linda. Siglo XX moda: Estudio del estilo de los últimos 100 años por década y diseñador, en asociación con Vogue. Espainia:

Edilupa Ediciones, S.L., 2004.